

SAN JOAN GURUTZEKOREN POESIA

Literatura-adituak bat datoz san Joan Gurutzeko gaztelaniazko poeten gailurrean jartzean. Mundu osoan ezaguna eta miretsia da. Ekoizpen urria du, beste autore batzuen ondoan, baina duen hori nahiko izan du poeten zerumugan goi-goian toki hartzeko. Haren mezu espirituala iritsi ez den tokian ere, haren bertso berdingabeak aztertzen eta errepikatzen dira.

San Joan Gurutzekoren esperientzia erlijioso sakonenari loturik dago; bera da poesia mistikoaren adierazgarri gorenena. Mistika eta poesia zer batean uztarturik daude bizi-esperientzia bat eta berean. Mistika, jatorriz, poesiari itsatsirik dago bere berezko adierazpide eta lagun gisa. Prosazko idazkiak ez dira, iturritik hara, berez eta zuzenki isuriak. Itzulpen antzekoak dira, adierazpidea pixka bat beharturik, jaiokak. Barruko bizipenetan itzulginguru handiak eginik onduak. Hauek pedagogiazko helburua izaten dute eskuarki: poesiak, berriz, berezko lehertze bezala, kantu liriko garbia dira bizipen-oihartzunez bustiak.

Kronologiari dagokionez, gainera, Joan Gurutzekoren literatura-hasikinak dira. Historikoki egiaztaturik dago guganaino iritsi diren San Joan Gurutzekoren orrialderik zaharrenak olerkiak, poesiak, direla.

Poesien kokapena kronologiaren arabera

Medina del Campon ikasle zela (1559-1563), Santuak idazten eta metrikari jardun behar izan zuela jakinekoea da, baina ez da geratzen lehen saio akademiko haien inolako aztarna-

rik. Jainkoarekin harremanetan, goi-kontenplaziozko giro maitetsuan jaio ziren ezagutzen diren haren poemak. Ez guztiak batera eta toki berean, pixkaka-pixkaka eta hainbat tokitan baizik. Haren poesiazko lehen emaitzak, Avilako Gizakundeko moja karmeldar oinutsen aitor-entzule zenekoak direla uste da (1572-1577).

Ama Teresa Jesusena monasterio hartako nagusi izendatua izan zenean, han ezarri zuen bere fundazio berrietan bereizgarri izan zen giro erlijioso, espiritual eta poetikoa. Laguntzailerri jarri nahi zuen frai Joan Gurutzeko, Gizakundeko mojen zuzendaritza espirituala bere gain hartu baitzuen. Liturgiako eta Ordenako festaburu eta ospakizunei gozotasun eta liriko-tasun airea emateko eratzen ziren jarduera loratu haietan, san Joan Gurutzekok aktiboki esku hartzen zuen. Ezaguna da Ama Teresak berak bertsogintzarako zuen erraztasun eta joera; Gabon-kantetarako letra gozoak eta alaiak ontzen saiatzen zen, gutunetan behin eta berriro agertzen denez. Pixka bat geroago, Calvario, Baeza eta Granadako nagusi izan zenean, Santuak berak piztu eta indartu zuen karmel teresiarren aire erlijioso eta liriko hori bere seme espiritualen artean.

Ziur asko Avilan bizi zenean onduak dira san Joan Gurutzekoren benetako poesietako batzuk. Ez dago agiri argirik hori ziurki baieztatzeko, baina zantzuetatik hala dirudi eta adituak bat datoz iritzi horretan. Avilako garai horretako bakarrak direnik ez dirudi, baina seguruentzat honela hasten diren koplak eta glosak ordukotzat jotzen dira: *Sartu nintzen, non ez jakin (Entréme donde no supe)* (4.a itzulpenerako erabili dugun argitalpenean) eta *Neugan bizi gabe biziz (Vivo sin vivir en mí)* (5.a). Lehenengoa, eskuizkribu eta argitalpenen tradizioan, “kontenplazio handiko estasi bati” loturik agertzen da. Bereizirik kopiatzen duen eskuizkribu batean, koplak hauen inspirazio-tokia ere zehazten da: “Santuak Segovian izan zuen estasi batean” (Alba de Tormesko esk.). Avilan bizi izan zen urteetan lagundu zion Santuak Ama Teresari Segoviako funda-

ziora, 1574ko hasieran, eta han egon zen, gutxi gorabehera, hilabete; dena dela, garai horretan estasi edo espirituaren gainezkaldirik izan zuenik ez da inon esaten. Dokumentaturik dago, ordea, aurreko urtean Avilako Gizakundeko monasterioko mintzalekuan izan zuela, Ama Teresarekin Hirutasun Santuaren egunean hitz egiten ari zela. Kopla hau berandukoa izan daitekeela dioen baieztapena ez da erabakigarria san Joan Gurutzekoren estasia noiz gertatu zen eta haren eraginpeko poesia noizkoa zen zehazteko, berari gertaturiko estasiar ari bada behintzat. “Kontenplazio handiko estasi batez” dioenean, uler daiteke era inpersonalean, baina berari gertaturiko estasiar ari dela dirudi, batez ere bertsoen edukia kontuan hartzen bada.

Bi glosa hauen antzinatasuna, datuetan baino gehiago, bat egiten duten zantzuetan eta xehetasunetan oinarritzen da. Hortaz, Sanlúcar de Barramedako kopia, autoreak berak zuzendu eta orraztua da, eta literatura-mota bakoitzeko idazkiak, ziur asko, konposatu ziren kronologiaren arabera zerrendatzen dira, eta Avilan idatzitakoak izan daitezkeen bi glosak Toledoko kartzelan idatzitakoak eta “jainkozko glosen” aurretik ezartzen dira. Horri gehituz gero, autoreak Avilan bizi izan zuen giro teresiarra, han idatzi baitzuen Teresak bere glosa ospetsua ere *Neugan bizi gabe biziz (Vivo sin vivir en mí)* gai berberaz, hobeki ikusiko da horrantz jotzen dutela probabilitate guztiek.

Toledoko komentuko kartzela izan zen san Joan Gurutzekoren kreaio poetikoaren gunerik garrantzitsuenetakoa, horretaz aritu diren autore guztiek azpimarratu dutena (1577ko abendutik 1578ko abuztura). Ongi dokumentaturik daude ziega hartan jaio zirela ondorengo konposizio poetiko hauek: *Kantu Espiritualaren 31 kanta (1)*. *Ongi dakit nik iturria non den, / gaua izan arren (Que bien sé yo la fonte que mana y corre, / aunque es de noche) (8)*. *Erromantzeak (9)*; hauek Hirutasun Santuaz bederatzi erromantze dira, edo batzuek, be-

deratzi ataletan idatzitako erromantze bakartzat kontatzen du-te, eta “Super flumina Babilonis” salmoaz erromantze bat (10). Hauetaz lekuko zuzenak daude; Magdalena Espiritu Santuaren lekukotasuna eta Ana San Albertorena azpimarratzen dira ba-tez ere Toledoko kartzelatik atera zituen poesia-lanez.

Toledoko komentuko kartzela hau nolakoa zen irakurleak jakin dezan komeni da, nolabait irudika dezan non sortuak di-ren hain pieza liriko zoragarri hauek. A. Krisogono Jesus Sa-kramentu Santuarenak bizi-bizi kontatzen dizkigu kartzela hartako zertzeladak (*Vida de San Juan de la Cruz*, Biblioteca de Autores Cristianos. Madrid 1991). Hortik oso laburturik eta neure erara jarri nuen euskaraz. Hona aurreko *Karmel* batean agertu zen zatia:

“Karmeldar oinetakodunek, obserbantzia zaharrekoek, gaizki hartu zuten santa Teresaren erreforma eta haren buru zirenak errebeldeztat joz, atxilotu eta betiko desegin eta ito nahi izan zuten karmeldar oinutsen familia erlijiosoa. Beldurra eta izua sortu nahi zuten haietako buruen eta gainerakoen ar-tean. Joan Gurutzeko haien amorruzko zurrunbiloaren erdian gertatu zen.

Toledoko komentuan karmeldar oinetakodunek eduki zu-ten preso; estua, iluna, hilobi bat bezain itogarria zen ziega ikaragarri batean. Berez, kanpotik zetozen fraideentzat, osta-tuz edo pasadan zeudenentzat, eginiko komuna zen, orain san Joan Gurutzekoren ziega bihurtua. Sei oin zabal, eta ha-mar luze; goian gezileiho bat zuen hiru hatzekoa; han nekez irakur eta idatz zitekeen ezer. Libururik ez zuen eraman hara gure Santuak, Orduen Liturgiako liburua (Brebiarioa) izan ezik. Gainera, ez zioten eman ez paperik, lumarik ez tintarik. Neguaren hasieran sartu zuten eta bederatzi hilabete eman zi-tuen bertan, ihes egin zuen arte. Toledoko neguko hotz gogo-rra eta udako bero kiskalgarria probatu ahal izan zituen. Kar-tzelazainak ostiral guztietan jaisten zuen komunitateko janto-

kira, zigortu gisa, guztien aurrean lotsaria jasan zezan, eskapulariorik eta txanorik gabe; jantokiaren erdian lurrean eseririk barau egin behar zuen ogi hutsa eta ura, amaieran aita priorearen zentzaldi latza eta zigorkadak jasotzeko...

Nola idatzi poema horiek ziega hartan eta baldintza haietan? Ez, ez zituen idazten; ezin idatzi, ez baitzuen idazteko modurik ez tresna materialik. Buruan sortzen zituen, eta bihotzean eta buruan buelta asko emanez, oroimenean gorde altxor preziatu gisa. Lehenengo hil haietan dena zen bekozkoa, mehatxua, iraina. Ez zuen inon aurkitzen erruki ez maitasun izpirik. Bai, egundo hutsik egiten ez duena bere barru sakoinean zen, ezkutaturik, ihes egin balio bezala. Jesusek gurtzean esandako hitzak etorriko zitzaizkion gogora: *Ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu bertan behera?*

Sei hilabete igaro ondoren, zaintzaile berria jarri zioten. Fraide gazte on eta errukitsua. Honek aurreko zaintzailearen jokaera gogorak alde batera utzi zituen, tratu askoz ere hobea eta duinagoa emanez preso gaixoari. Aldatzeko arropa garbiak ekarri zizkion, zatika urratzen eta erortzen zitzaizkion zaharrak bazterturik; noizbehinka ondoko galeriara ateratzen zuen, pixka bat ibili eta haize garbia har zezan. Berehala ohartu zen zaintzaile gaztea kartzelan zeukatena santua zela. Joan Gurutzekok konfiantza hartu zuen harekin eta behin papera, luma eta tinta eskatu zizkion; deboziozko gauzak zituela buruan eta, entretenigarri, haiek paperean jartzea nahiko lukeela. Ekarri zizkion eskatutakoak eta horrela jaio ziren idatziz Joan Gurutzekoren poemarik ederrenetakoak.

Dena dela, orain zaintzailearen aldetik erruki eta gizatasun izpiak sumatzen bazituen ere, ziega hartan Joan Gurutzekoren bizitza oso latza zen. Ahuleziak jota ikusten zuen bere burua; beldur zen bertan ez ote zen hilko. Ihes egitea zen erremedioa. Otoitzean barruko eragin bizi-biziak sentitzen zituen ihes egiteko. Jaunarekin sekretuan zerabiltzan horretarako bi-

deak. Zaintzaileari arropa saretuak pasartzeko jostorratza eta haria eskatu zizkion.

Arropa zaharra pasartzeko ez ezik, beste zerbaiterako ere baliatu zuen haria. Galeriara irteteko aukera izan zuen batean, hari-muturrean harritxo bat lotu eta leihotik lurrera zegoen distantzia neurtu zuen. Horren ondoren, gelako bi manta zahar bata besteari loturik, hariarekin neurtu zituen. Bi mantentuz luze eta gorputzaren altueraz lurrera iritsiko zen doidoi. Beste zertxobait ere bazuen egiteko: gelako ateko giltzarra poen torlojuak bultzada txiki batekin zabaltzeko eran lasaitu behar zituen. Lortu zuen helburua, ihes egitea. Behin lurrean, abitua jantzi zuen, leihotik zintzilikatu aurretik lurrera bota zuena. Goizaldean Toledoko San Jose moja karmeldar oinutsen komentura iritsi zen. Atea itxita zegoen, baina dei egin zuen eta baita ireki ere. Hain zuzen ere, moja bat zegoen une hartan oso gaixo eta aitor-entzulea nahi zuen. Horrela, klausuran sartu zuten Santua. Mojak harriturik geratu ziren, haren itxura ikusita; hilda bezala zegoen, guztiz jota. Gero, besteok... ihes egindakoa bila etorri zirenean, mojen klausura barruan ongi ezkutaturik zegoen. Garbitu, jantzi eta zerbaitharturik, suspertu zen eta kartzelako gorabeherak eta ihesa kontatu zizkien bizi-bizi; eta azkenik, buruz errexitatu zituen berri-berri zekartzan hainbat kanta, horien artean, Erromantzeak Hirutasun Santuaz: *Hasieran bazen Hitza*. Eta Kantu Espirituala: *Non ezkutatu zera, / ene Maitea, ni utzirik saminez*.

Horrela, mojekin eta fraideekin elkarrizketan, osatu ziren haren poema asko eta batez ere prosazko obra handiak. Haren poemak entzunik, liluraturik geratzen ziren, beste hots bat zutelako, hots zerutarra, hemen ordura arte entzun gabea. Baina poema haiek barnean doktrinazko eduki sakona zuten, eta mojen eta fraideen galderei eta jakin-minari erantzunez, kanta haien barrunbea aztertu eta azaldu beharrean izan zen prosazko lanetan”.

Gainerako konposizioak non eta noiz idatziak diren zehaztea zailago da. Gehienak Granadako jarduera literarioan kokatzen dituzte adituek (1582-1586). *Gau Ilunaren* poemak data hau baino lehenagokoa duela dirudi. Bi arrazoi ikusten dira horretara eragiten dutenak: Batetik, Toledoko kartzelaldiko kronologia eta orduko sinboloak erabiltzea: *Gau ilun batez barnea / maitasunetan sutan zegoela, / oi zorion unea! / inork ez nakusela / irten naiz nire etxea bakez zela*. Eta bestetik, dokumentaturik dagoena, 1582ko urtea baino lehen azaldu zela poema hori ahoz eta idatziz. Beraz, zantzu horiek eta *Karmel Mendira Igoeraren* eta *Gau Ilunaren* hitzaurreetan esaten denaren arabera, *Gau Iluna* poemaren idazketa Toledoko kartzelako ihesaren inguruko egunetan ezarri behar da.

Hobeki dokumentaturik dago *Kantu Espiritualaren* luzapeana, 31. kantatik 39.a osatu arte. Kartzelan idatzirik 31 kantako lehen sailari, geroago, bi sail gehitu zitzaizkion: 3 kantako saila batetik eta 5 kantakoa bestetik, 39 kanta osatu arte. Azken bi sail hauek bi garaitan, baina biak Granadan onduak dira, Ana Jesusenari eskainirik, hiri hartan prosaz azaltzeari ekin baitzion.

Granadako garai horretan kokatu ohi da *Maitasun Gar bizia* poemaren idazketa ere (3). Gai aldetik, *Kantu Espiritualaren* azken aurreko ahapaldiaren aldaera edo glosa da; zehazki, *Min gabe erretzen duen gar-izpia (Con llama que consume y no da pena)*. Prosazko azalpenaren hitzaurrean, berariaz baieztatzen da Ana Peñalosa anderearentzat onduak izan zirela bertsoak; 1582az gero, andere hau, Granadan, Santuaren zaintza espiritualaren pean zenetako bat zen. Poema honen idazketa, beraz, 1582tik 1585a bitartean jarri behar da.

Maitasun Gar bizia poema idatzi eta laster idatziak izan behar dute, adituen iritziz, gainerako Joan Gurutzekoren poesiak, Gabon-kanta antzeko pieza arin batzuk, eta *Eutsi gabe ta eutsita (Sin arrimo y con arrimo)* (11) glosa izan ezik. Auto-

reak berak dio, hasiera batean poesia profanoak zirela hauek guztiak, jainkozko erara bihurtuak, horretan trebetasun handia baitzuen gure Santuak; hauek izan daitezke pieza horiek: *Maitetzko ebiza ondorik* (*Tras de un amoroso lance*) (6); *Artzaintxoa minez dago bakarrik* (*Un pastorcico solo está penado*) (7); *Edertasun denagatik* (*Por toda la hermosura*) (12); hauen sailekoa izan daiteke, berariaz esaten ez bada ere, lerro batzuk gorago aipatu dugun *Eutsi gabe ta eutsita* (*Sin arrimo y con arrimo*)... Jatorriz poesia profanoak baina jainkozko erara bihurtuak izateak, poesia hauen gai aldetiko giroaz batera, Granadako garai horretara eramaten gaitu, han dastatu eta praktikatu baitzuen “jainkozko erara bihurturiko poesia”. Gerta daiteke lehenago eta beste toki batzuetan ezagutu izatea poesia mota hori; baina gauza ziurra da, genero hura etxeko eta ohiko bihurtu zitzaiola lehen aldiz Los Martires-ko priore izan zenean (1582-1584). Berak ere argi egiten digu horretaz, *Maitasun Gar biziaren* azalpenari ekiterakoan. Eta irakurleari ohartarazten dio, poema honetako ahapaldiak ez direla *Kantu Espiritualeko* eta *Gau Ilunekoak* bezalakoak. *Maitasun Gar biziko* lirak sei bertso-lerrokoak direla, dio, eta Boscánen bertsoen antzera moldatuak direla; gero, adibidetzat aipatzen du ustez Boscánena zen ahapaldi erdi bat, baina ez da Boscánena, Garcilasorena baizik. Bi poeta adiskideen hainbat poema, jainkozko erara bihurturik, argitalpen berean zabaldu izanak eragin du bata bestearekin nahastea. Granadan 1575ean argitaratu zen Sebastián de Córdobaen argitalpena aipatzen da. Ez dago esan beharrik, *Maitasun Gar bizia* poeman ahapaldien moldea kopiatzen duela soilik; gainerakoa bere-berea duela. Kasu batzuetan, hemen bezala, poeta ezagunen metrika-moldea kopiatzen da; beste batzuetan, berriz, herri-kanta baten errepika edo leloa hartzen da eta molde horretan egiten dira glosak; adibidez, maite-kanta baten errepika da *Neugan bizi gabe biziz* (*Vivo sin vivir en mí*) poesiaren glosa, S. Tere-sarena eta S. Joan Gurutzekorena; gauza bera *Artzaintxoaren*

(*Pastorcico*) poema ere: maite-kanta profanoa zen jatorriz, Joan Gurutzekok fintasunez eta maisuki jainkozko erara bihurtua.

Inspirazio-iturriak

Poesiarako berezko dohain berdingabeak izanik, esperientzia eta Biblia dira haren inspirazio-iturri etengabeak. Izatez ez dira bi iturri, bat baizik; Biblia baitzen haren esperientzia pertsonalaren hitz berezkoena, jatorrizko esperientzian barnertua eta bereganatua zuena. Ez dago Santuaren poesiarik Biblian oihartzunik eta paralelismorik ez duenik. *Kantu Espiritualak* eta *Erromantzeek* dituzte Bibliaren aztarnarik markatuenak edukian eta adierazpenetan.

Bibliarekin batera eta, eskubide osoz, berberak berariaz aitorturik, beraren mendeko material ugariak eta literatura-giroa daude. Bi autore ia garaikide irakurri zituela dirudi aparteko atsegina eta ahogozoz: Boscán eta Garcilaso, *Maitasun Garbizian* aipatzen dituenak, ahapaldien egiturari dagokionez, haiekiko zorra aitortuz. Giro kultu eta herritarretik edaten du. Beraren mendean jatorriz profanoak ziren poemak jainkozko erara ezartzeko joera zen eta gure Santua biziki barnertatu zen joera horretan, konposizio kultuetatik nahiz kanta herritar eta errepika sarkorretatik jainkozko glosa fin eta zoragarriak onduz; baina honetaz nahiko izan bedi aurreko lerroetan jarri duguna. Orain, karmeldarren komunitateetan, fraideenetan nahiz mojenetan, zegoen kanta eta bertso-giro xume eta gozoari begira jarriko gara. Gorago ere, Santua Avilan bizi zeneko urteetan jaiotako poesiaz jardun dugunean, aipatu dugu giro hori, baina merezi du pixka bat gehiago sakontzea, Joan Gurutzekoren inspirazio-iturriak zein diren argiago gera dadin.

Gure Santuaren poesien jaiotza, bizitza eta zabalkunderako, giro egoki, gozo eta etxekoa zen karmeldar teresiarren komunitateetako. Giro horretan ernetzen, errezitatzen eta

kantatzen ziren san Joan Gurutzekoren kantak. Karmeldar lirika hori bazen gure Santuaren kanten aurretik, haiek sortzean eta gero ere. Asko aberasten da eta gozatzen da haren kante-kin eta, era berean, mintegi jori bihurtzen goi-argia bilatzen zutenentzat. Lekukoek diote haren anaia, Frantzisko Yepes ere koplak espiritualen egilea eta kantaria zela. Beraz, koplaria esango genuke.

Sanjoandar poesiaren elementu garrantzitsu bat kantua da. Karmeldar giroan eta haren esperientzian kantua eta poesia batera doaz. Beharbada, betidaniko poesiak izan du kantua-
ren beharra, jaiotzeko, bizitzeko eta zabaltzeko. Gerardo Die-
gok dio, eztabaida ezina dela poesia eskubide osoz jaino zela
bizitza akustiko eta entzutezkoa. Izatez, poesia lirikoa nahiz
epikoa, jatorrian, ez zela irakurria ez errezitatua izan, kantatua
baizik. Geroago moztu zitzaizkion musikaren osagai hori.

Karmeldarren komentu eta monasterioetan asko kantatu ohi zen, aro liturgikoen ospakizunetan eta elkarrekiko jostal-
dietan. Joan Gurutzeko oso sentibera zen kanturako, oso po-
zik eta atseginez entzuten zuen. Beasko eta Granadako min-
tzalekuetan gertaturikoen oroipena gorde da, pena eta ederta-
sunaz kantatzen entzutean nola hunkitzen zen. Kaleko
koplatxoak ere iristen zitzaizkion, esaterako, Toledoko kartze-
lan zenean.

Lekukoek eta lagunek diote, berak ere sarri ekiten ziola
kantari, etxean eta batez ere bideetan, garai hartan bakarti, lu-
ze eta gogaikarriak ziren bideetan. Bide haietan salmoak kan-
tatzen omen zituen, Andre Mariaren kantak eta berak asmatu-
riko aireak. Misterioei dagokienez, Gabonak dira Joanen kan-
turako garairik gozoen eta alaienak. Batzuetan izadiko
edertasunez bere burua inguraturik ikustean, besterik gabe
hasten omen zen kantari.

Joan Gurutzekoren poesiak bera bizi zela ere kantatzen zi-
ren. Nobizioek *Gau Ilunaren* poema kantatzen zutelako leku-

kotasunak ditugu. Eta oraindik interesgarriago dena, Ana Sakramentu Santukoaren lekukotasuna dugu, santa Teresak berak pozik entzuten zituela eta mojekin batera esku hartzen zuela Santuaren poesiak kantatzen. Teresak berak eraman omen zituen *Kantu Espiritualaren* aire gozo batzuk, beste komunitate batean ikasiak, Medinara eta “eskatu omen zien moiei josta zitezela haietan eta kanta zitzatela, eta halaxe egin zen, eta harrezkero kantatu ohi ziren eta kantatu ohi dira”. (Andres Gizakundekoak biltzen du lekukotasuna, *Memorias historiales*, esk. 13482 bnm, 74i. f.).

Honezkero, monasterioetako kanta hauek irudikatuz uzten dugu irakurlea, Joan Gurutzekoren poemetan murgildua.

Luis Baraiazarra Txertudi